



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza

Larunbata
2009-09-05

VIIURTEA 1.768.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Saharar festaren baitan, henna tailerra egin zuten haima barruan. ESTI EZEIZA

GUREAN ERE ETXETIK GERTU SENTITZEKO

TOLOSA Uda eskualdean igaro duten saharar haurrei zuzenduta festa ospatu zuten atzo arratsaldean; irailaren 10ra arte egongo dira 4

Kontxako estropadan lehiatuko dira San Pedroko arraunlari billabonatarak

VILLABONA Ander Ansa, Joseba Larrarte, Garikoitz Lopetegui eta Eneko Larrarte 3

Talo Eguna antolatu du Plazaola Partzuergoak biharko herriko plazan


LEITZA Herri kirolak, artisauek, talogileak,... izango dira 10:00etatik aurrera 7

Abastosko merkatua haur eskola bezala erabiltzea erabaki dute azkenean

TOLOSA 2010/2011 ikasturterako prest egotea aurreikusi dute 4

Indarrak metatzera deitu du AAMk «salbuespen egoera gainditzeko»

TOLOSALDEA «Mugarik gabeko errepresioan» kokatu ditu azken hilabeteetako gertakariak 5



Urriaren 3ra arte dago ikusgai erakusketa. I. TERRADILLOS

'Biblioteca en guerra' erakusketa ikusgai jarri dute Aranburu jauregian

TOLOSA Errepublikara garaian liburutegien inguruan eginiko lana islatzen du erakusketak 6




Irailak 6 **IGANDEA**
MANIFESTAZIO IXILA Lizartzan 19:00tan
UTZI BAKEAN LIZARTZA!



Uda osteko lehen ibilaldi honetan eskualdeko mendaterik altuena igo beharko da, Bidegoianera heltzeko; tartean Bidania, Goiatz eta Albiztur bisitatzeko aukera izango da.

Bidegoian-Albiztur



JOXEMI SAIZAR

Aprobetxatu al dituzue udako oporrak bizikletan ibili eta eskualdea ezagutzeko? Sasoian al zaudete? Bada gaurko ibilaldia egiteko indar guztiak beharko dituzue, eskualdeko mendaterik altuenetako igoetzea tokatzen baita. Hasteko, Tolosatik Olarraineraino (hau baita leku horren izena, eta ez bertan zegoen jabetxe batena) bidegorria erabiliko dugu, beste ibilaldi batzuetan bezala eta han Azpeitira doan errepidea (GI-2634) hartu.

Aldapaleuna dago hasieran, baina berehala gogortuko da, Harrobi zahararen parean. Are gogorra goa plater handian igo behar bada, nire kasuan bezala, erabili gabeko tartean kanbioa izorratuta. Hori Albizturren ez litzateke arazoa izan behar, pelotoi profesionalako artista trebeena bertan bizi baita. Baina une horretantxe Espainiako Itzulian Zubeldia edo Astana taldeko txirrindulariren bati masajek ematen ariko zen Balentin Dorronsoro.

Albizturko bidegurutzearan amasa hartu eta igoeraren bigarren zatian ekiteko presta zaitzete. Santutxoko bentan Santa Marina auzora edo Beizamara joateko aukera dago, etapa luzatu nahi izanez gero. Oraingoan Bidegoianeraino joatearekin konformatu behar. Bidania mendatea da ibilbideko punturik garaiena (511 m), handik herriera zelaia da. Dakizuen bezala herri hau bi herri ziren 1964 arte.

Santa Marina auzora edo Beizamara joateko dago, jardunaldia luzatu nahi izanez gero


Bidania San Bartolome eliza, udaletxea eta uda honetan irekita-hotela (eskualdeko eta Gipuz-



Atari soro frontoi berri eta ederra eta eliza ikus daitezke Gipuzkoako herri txikienean, Baliarrainen. JOXEMI SAIZAR

koa barnealdeko lau izarretako bakarra, jauregi batean kokatua) ikustea merezi du. Donostiako gotzaina izan zen Lorenzo Bereziartua bertan jaio zen. Goiatzen, Bidaniatik oso gertu, Jasokundeko Andra Mari eliza ikus daiteke. Herri honetan probintzian garaierarik handienan dagoen etxea dago, Ernio inguruko Berazeaga base-ria.

Bueltakoan, Albizturri bisita
Itzultzerakoan, mendatea igoz gero, dena aldapa behera izango dugu eta Albiztur ezagutzeko



aprobetxatu dugu, horretarako Intxurralde baserriko bidetik sartuz herria (GI-304).

Udaletxea, Jasokundeko Andra Mari eliza, San Gregorio basiliza eta labadero ederrak ikus daitezke. Millan Telleria eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak dira bertako seme ilustreenak. Ugarte jatetxetik abiatuta, berrindartzen ari den Tolosako auzo bat bisitatzeko aukera dago: Urkizu (519 m). Horretarako aldapa gogorra izango duzue eta ondoren zappi kilometroko jaitsiera bihurtu-etsua.

Alegiako dantza taldeko haur eta helduek urrian hasiko dute ikasturte berria

Alegia » Izena emateko epea irailaren 20ean bukatzen da eta Kultur Etxean eman beharko da.

ERREDAKZIOA

Alegiako dantza taldea ere, opor egunak pasa eta ikasturte berria prestatzera doa. Gazte eta heldu, urria hasterekin batera martxan jarriko dira.

Dantzan hasi nahi dutenek, Kultur Etxean, irailaren 20a dute azken eguna izena emateko. Txiki-enek dantza taldean hasi nahiko balute, gutxienez 6 urte izan beharko dituzte. Gazteen entsegu guztiak, asteazkenetan izango dira eta helduen kasuan berriz, entsegu eguna astelehenetan izango da.

Orduetegiak, ikasturtea hasi baino lehen egingo den bileran zehaztuko dira. Hala ere, entseguetan hasteko egunak zehaztuta dituzte jada: helduak, urriaren 5ean eta gazteak berriz urriaren 7an hasiko dira.

Laburrak

Jaietako txekorraren zozketako irabazlea

AMEZKETA • Urtero bezala Amezketako Guraso elkarteak txekor bat zozketatu zuen herriko jaietan. Zerbaki sariduna 4236 izan zen. Irabazlea guraso elkartearekin harremanetan jar daitezke.

Usabalgo ikastaroetan parte hartzeko deialdia

TOLOSA • Ikasturte berriarekin batera ikastaro eskaintza zabala ireki du Usabalgo kiroldegia. Bertan parte hartu nahi dutenek orain dute izena emateko aukera. Bazkideek irailaren 10era arte dute aukera eta ez bazkideek irailaren 10etik 16era bitarte. Informazio gehiago nahi duenak www.usabalkiroldegia.com helbidera jo dezake.

2000E PLANAREN MEMENTOA DA CITROËN MEMENTOA DA

CITROËN C4 HDi 11.600€tik

CITROËN C3 | C1 GAMA 7.300€tik | 6.200€tik

CITROËN XSARA PICASSO HDi 12.800€tik

CITROËN C4 SEDÁN HDi 15.800€tik

CITROËN KONFIDANTZAZKO PLANA: LANGABEZI ESTALDURA OPARI

ETA GAINERA %0ko MATRIKULAZIO ZERGA: C1 | C2HDi | C3HDi | C4HDi 90/110 FAP/110 CAMP FAP



Hasi dira ere Elduainen eta Izaskun auzoan

JAIAK ● Elduainen eta Tolosako Izaskun auzoan eman zien hasiera atzo arratsaldean jaietako ordu horietan ohi izaten den bezala, haurrei zuzendutako ekitaldiak izan ziren. Elduainen txupinazoa bota ondoren puzga-

rriak eta tailerrak zan zituzten frontoian, euritik babesturik. Izaskun auzoan, txupinazoa bota eta gero txokolata dastatzeko aukera izan zuten bertara joandakoek eta ondoren buruhandien txanda izan zen. I.GARCIA

Kontxako estropadan ariko dira bihar San Pedroko arraunlari billabonatarak

Villabona » Ander Ansak, Joseba Larrartek, Garikoitz Lopetegik eta Eneko Larrartek egiten dute arraun San Pedroko traineruan.



San Pedro trainerua, Kontxarako sailkapen estropadan. R. PEREZ/IRUTXULOKO HITZA

IMANOL GARCIA

Villabonako arraunlariak izango dira bihar urteko estropada garrantzitsuenean, Kontxako banderan. Ander Ansa, Joseba Larrarte, Garikoitz Lopetegi eta Eneko Larrarte San Pedroko traineruko arraunlariak dira. Eskifaia titularraren aurreneko hiruak aritzen dira eta seguruenik ere bihar lehiatuko dira Kontxako badian.

Herenegun egindako kanporaketan seigarrenak gelditu ziren. Joseba Larrartek azaltzen duenez, oso urduri aritu ziren: «Urduri ateraginen. Estropadarako sailkatzea ez zen helburua, lehenatsuna baizik. Eta horrela hartzen duzue gauza bat... Oso urduri ateraginen eta ez genuen estropada oso betearen egin. Baina behintzat sartu ginen eta gustura».

Larrartek kanporaketaren ki-niela egin izan balu, atzo sailkatutako zazpirak sartuko zituela dio: «Jendeak Urdaibaikanpoan uzten zuten, baina nik ez nuen hain garbi, nik barruan sartzen nuen. Azkenean espero zirenak sartu dira». Itsasoa «oso mugitua» zegoen eta horrek ere eragina izan zuen arraunlariengan: «Horrelako olatuekin eta horrelako itsasoetan askotan edozein gauza pasa daiteke, ura sartu edo, eta kanpoan gelditzen zara. Itsaso normalarekin horrela-

ko gauzak gertatzea zailagoa da». Biharko itsaso hobea eman dutela dio arraunlari billabonatarak. Bigarren urtea da parte hartzen duela Larrartek Kontxako estropadan.

Zortzi taldek parte hartzen dute lehia eta bi igandetan jokatzen da bandera, bihar eta hilaren 13an. Biharko egin den zozketak zehaztu duenez, San Pedro bigarren txandan ariko da eta ondoan beste faborito nagusiak izango ditu: Kalku, Castro eta Orío. «Gustura» hartu zuen zozketaren emaitza billabonatarak. «Aukeran nahiago nuke lehenengo txandan atera. Beti izaten da haizea altxako den beldurra. Bestela, aurkari guztiak aldamenean ditugu eta hori ona da». Sailkapen estropadak bihar, Castro eta Orío. «Gustura» hartu zuen zozketaren emaitza billabonatarak. «Aukeran nahiago nuke lehenengo txandan atera. Beti izaten da haizea altxako den beldurra. Bestela, aurkari guztiak aldamenean ditugu eta hori ona da». Sailkapen estropadak bihar, Castro eta Orío. «Gustura» hartu zuen zozketaren emaitza billabonatarak. «Aukeran nahiago nuke lehenengo txandan atera. Beti izaten da haizea altxako den beldurra. Bestela, aurkari guztiak aldamenean ditugu eta hori ona da». Sailkapen estropadak bihar, Castro eta Orío. «Gustura» hartu zuen zozketaren emaitza billabonatarak.

dian eta Pedreña ere hor ibili da. Ez dut hain garbi ikusten. Nik uste dut itsasoa ona badago denak segundu gutxitan ibiliko garela».

Denboraldi «oso ona»

«Hasi aurretik sinatuko nuke egiten ari garen denboraldia», esaten du billabonatarak. Hirugarren urtea dute ACT Ligan. Lehenengo urtean, igo berritan, zazpigarren egin zuten. Iaz laugarren gelditu ziren, estropadarik ez zuten irabazi eta Kontxan sartu ziren. «Hirugarren urte honetan Ligan bigarren gaude, bi bandera lortu ditugu eta Gipuzkoako Txapelketa irabazi dugu. Denboraldi oso onaz izaten ari da eta oso gustura gaude», zehazten du.

Larrartek dio «sekulakoa» izan behar duela Kontxako bandera eskuratzea. Hala ere, nahiago luke Liga irabaztea Kontxabaino. «Liga irabazteak esan nahi du urte guzti-ko traineru onena izan zarela», zehazten du.

Laburrak

Euskal Jaia antolatzeko bilera asteartean

ANOETA ● Euskal Jaia izango da Anoetan urriaren 11n, igandea. Hori prestatzeko bilera izango da datorren asteartean, hilak 8, 19:00etan udaletxean. Festa Batzordetik herriko talde guztiei eta herritar orori animatzen diete bilera parte hartzera.

Karibear eta brasildar dantzak egiteko aukera

BERROBI ● Hilaren 15era arte irekita dago Aulas Kutxak Berrobin seihi-labete honetarako antolatu duen egitarauko izena emateko epea. Zehazki karibear eta brasildar dantzak antolatu dituzte San Andres ikastetxearen laguntzarekin. Kutxaren bulegoetan eskatu daiteke informazio gehiago. Izena emateko beharrezkoa da 16 urte baino gehiago izatea eta Kutxan kontu korrontea izatea. Izena emateko www.kutxasocial.net helbidean sartu edo 902 540 040 zenbakira deitu behar da (08:00etatik 14:30era).

Jesusen Bihotzakoak datorren astean hasiko dira

VILLABONA-ZIZURKIL ● Jesusen Bihotza Ikastolak Villabona eta Zizurkilgo ikasle eta gurasoei gogorazten die datorren astean emango zaiola hasiera 2009-2010 ikasturteari. DBHkoak hilaren 8an, asteartea, 12:00etan izango dute aurkezpen saioa. Lehen Hezkuntzakoak hilaren 10ean, osteguna, hasiko dira 09:00etan. Haur Hezkuntzakoak hilaren 10ean ere, osteguna, hasiko dira. 3 urtekoak 09:15ean eta 4 eta 5 urtekoak 09:00etan.

Endika Abril Txapelketaren partida gaur plazan

VILLABONA ● Erreboteko Endika Abril Txapelketa martxan dago dagoeneko eta gaur txapelketa horretako partida jokatuko da Villabonako plazan, 11:00etan. Atharratzarrak eta kanboarrak ariko dira lehia.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUAN

■ **Pisua.** Pisua alokairuan. Eraikin berria, igogailua, logelak, jangela-egongela. Tolosako Alde Zaharrean kokatua. Interesatuek deitu: 665 709 380 (arratsaldez).

LANA

■ **Zaintzailea.** Neska euskalduna behar da amona bat zaintzeko. 649 62 59 77.
■ **Zaintzailea.** Emakume bat behar da adineko pertsona bat zaintzeko. Interesatuek deitu 679 819 042 telefono zenbakira.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Gizartea » Uztailetik eskualdean diren saharar haurrei zuzenduta festa ospatu zuten atzo arratsaldean.

Etxean bezala senti daitezzen, Saharako ohiturak Tolosan ere

ERREDAKZIOA

Egun gutxi geratzen zaizkie Euskal Herrian, uztailearen erdialdean etorri ziren saharar haurrei. Ehunika kilometrotara egon arren, atzo, beraien kulturaren oinarri diren hainbat ohitura Tolosara ekarri zituzten, «etxean bezala sentitze-ko». Izan ere, saharar festa ospatu zuten Plaza Berrian, eta jolasteko nahiz ongi pasatzeko aukera izan zuten.

Saharan arraroa den bezala, hemen ia eguneroko ogia da euria, eta atzo arratsaldean ere ez zen falta izan. Hala, eguraldia aurka izatearen ondorioz, beranduago ekin zieten ekitaldiei. Alde batetik, Plaza Berriko kioskoan haimabat jarri zuten eta teabanatu zuten bertarazten zirenen artean.

Saharar eta euskal kultura uztartzeko balio izan zuen atzoko festak. Basamortu aldetik zetozen kantuekin batera, euskal trikitiare-nak ere entzun ahal izan baitziren Tolosako Alde Zaharrean.

Saharako haurrak protagonista zirela ahaztu gabe, hauentzako hainbat joku prestatu zituzten. Honetaz gain, henna zer den eta nola egiten den ikusteko aukera ere izan zen.

Iluntzean, 19:00ak aldera, ekitaldi politikoa izan zen. Bertan Sahararak bizi duen gatazkaren inguruan mintzatu ziren; ondoren, opariak banatu zituzten haurren artean. Bertan izan zen Jose Agustín Arrieta zinegotzia. Egunari amaiera emateko, 100 lagunetik gora elkartu ziren afaltzera. Azkenik, Estrella Polisarioren kontzertua izan zen.



Jokuak, tea, musika, eta henna egiteko aukera izan ziren besteak beste, atzo arratsaldean Plaza Berrian, Saharar festaren baitan. ESTI EZEIZA

Abastos haur eskola izango da

Kultura » Erabaki dute zer egingo duten Alde Zaharreko eraikinarekin; datorren ikasturterako prest izango da.

ERREDAKZIOA

Haur eskolak kokaleku berria izango du datorren ikasturteretik aurrera. Udalak erabakitakoaren arabera, Abastosen etorkizuna hori izango da.

Hainbat iritzi eta eztabaidaren jopuntu izan da Abastosen geroa. Hasieratik, kultur ekintzetarako bideratzea ere erabilpen publikoa ematea zen Udaleko alderdi politikotako ordezkarien artean onarpen handiena zuena. Kafe Antzokiaz asko hitz egin bazen ere, azkenik, haur eskola egitea erabaki dute.

Une honetan proiektua gauzatzaren ari dira, eraikinaren erabilpen berria nolokoa izango den zehazteko. Arduradunen asmoa da, 2010-2011 ikasturtean zabaltzea zentroa.

Eusko Alderdi Jeltzaleak hainbat arrazoi medio, ekimen hau bultzatzea erabaki du. Esaterako, Berazubi auzoan egun kokatuta dauden eraikinak ez dituelako bete beharreko baldintzen gutxienezkoak.

Ikastaro ugari Kutxako Gizarte Ekintzarekin

Gizartea » Zenbait ikastaro nahiz jardunaldi izango dira udazken honetan Tolosan; izena emateko epea hilaren 15ean amaituko da.

ERREDAKZIOA

Urtero bezala, Kutxaren Gizarte Ekintzak hainbat ikastaro eta jarduera antolatu ditu. Hauen helburua da, «herritarren prestakuntza zabaltzea, zaletasun bat garatzeko edo lan-irteera hobea lortzearen».

Aurten 534 jarduera antolatu dituzte eremu guztietan, baina bereziki, ingurumena zaintzeari, garapen iraunkorrari eta ekosistemak babesteari eskaini diote arreta be-

rezia. Tolosan, orotara, lau jardueratan parte hartu ahal izango da. Alde batetik onddoekin nola sukaldatu erakusten duenean eta udaren ondoren azalarentzako zaintza bereziak azaltzeko emango dituztenean. Bestetik, bi hitzaldi ziklo ere izango dira. Bata, antzinako zazpi mirarien inguruko eta bestea, Photoshopekin argazkietan ukituak egiteko erakusten duena.

Ekintza hauek aurrera eramateko Softec-en, Txinparta elkartearen eta Kultur Etxearen laguntza du. Interesatuak hilaren 15a baino lehen eman beharko dute izena. Honetarako, 902540040 telefono zenbakira deitu beharko dute, 08:00etatik 14:30era bitartean. Baita, bere webgunean ere.

Inglese

FrantsesaAlemana

elduaren

2009-10 ikasturtearen hasiera: IRAILAREN 16a
40 urteko ESPERIENTZIA eta KALITATEA

Ongi etorria izango zara informazioa jasotzeko edo izena emateko:
943 69 63 73

Welcome! Willkommen! Bienvenu!

(S.S. Ondareta)

TOLOSA: Martín Jose Iraola 8, 3-Ezk. - Tel/Fax: 943 67 00 52 - 943 67 12 75 / Kondeaneko Aldapa, 30 - Tel/Fax: 943 67 47 33 / Nafarroa Etorbidea 12 ernto. / Gorosabel 40 Tel: 943 662372 - VILLABONA: Kale Berria 46, 2-B - Tel/Fax 943 69 63 73 - ALEGIA: San Juan 46 - Tel/Fax: 943 65 57 26



Atzo egin zuten agerraldia Donostian; bertan izan ziren, besteak beste, Aiestaranen familiarteokoa eta Ibarroko bizilagunak. JON URBE/ARGAZKI PRESS

Politika » AAMk «mugarik gabeko errepresio» batean kokatu ditu azken hilabeteetako gertakariak.

OIHANA ELDUAIEN (BERRIA)

«Espainiako Barne Ministerioak marraztu duen XXI. mendeko gerra zikina» agerian gelditu da azken hilabeteetan, Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren (AAM) irudiko. Eta ezinbesteko jotzen dute indarrak batu eta errepresio horri bidea ixteko horma altaxtea. «Estatu errepresioak» muga guztiak gainditu dituela salatu dute, eta horren adibidetzat jo dituzte Remi Aiestaranen heriotza, Alain Berastegiren eta Kontxuelo Agirrebarrena lizartzarren espetxeratzea; baita Jon Anzaren desagertzea, Lander Fernandez eta Juan Mari Mujikaren «bahiketak», presoan argazkien kontrako ehiza eta abar.

Patxi Lopezen esku dagoen Eusko Jaurlaritza berriak «salbuespen egoeran sakontzeko» apustua egin duela salatu dute Oihana Agirre eta Roberto Martinez del Campo bozeramaileek, eta bide beretik ikusten dute Nafarroako Gobernuare.

Remi Aiestaran zenaren senitartekoak eta Ibarroko herritarrak batu ziren atzo Donostian, besteak beste, AAMko ordezkariekin batera. «Estatu errepresioak» gero eta jomuga zabalagoa duela uste dute, eta «edozein aldarrikapen demokratikoaren» kontra egiten duela salatu dute.

Errepresioarekin «obsesionatuta» ikusten ditu AAMk Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo sailburu Rodolfo Ares eta Espainiako Barne ministro Alfredo Perez Rubalcaba: «Garaipen polizia-laren egarri ase ezinez». Haien «desesperazioak» ekarri du egoera hau, Agirrek salatu duenez.

Gasteizko Gobernuak «izaera faxista» duela ere salatu dute: «Konponbidea ekartzeko aukerak izan diren arren, haien muzin egin, eta polizien, torturen, espetxeen eta bahiketen bidez itxi nahi dute Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa». Eta Nafarroako Gobernu bide berean ari da, AAMk sala-

tu duenez. «PSN eta UPN eskuz esku ari dira beren proiektua zalantzan jartzen duen orenen kontrako sorgin ehizan».

«Eraso faxistatzat» jo dituzte Bilboko txupinerari egindako mehatxuak, Lasa eta Zabalaoren orotarriaren egindako pintaketak, eta Nafarroan memoria historikoaren kontra zein Ezpala, Zurgai eta Ipar Gorri tabernetan egindako pintaketak. Erasoriek «inpunitate osoz» eta «polizien konplizidate handiarekin» egin direla arbuatu dute, gainera.

Horretaz gain, «zigor eta mehatxuen bitartez» euskal presoan argazkiak «ikustezin» bihurtu nahian ere ikusten dituzte Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernu, baina, horrelakorik ez duela lortuko ohartarazi diete. «Gatazkaren erakusle» direlako ezkatuta nahi dituzte euskal presoak, baina AAMk haien egoera salatzen jarraituko du. Hala, «jipoi» egiten dituztela, «heriotz zigorra» jartzen dietela, «bizitza osorako zigorra» jartzen dietela, eta sakabanketak bere horretan jarraitzen duela salatu dute.

Remi Aiestaran «ertzaintzaren bortizkeriak» hil duela salatu dute, eta ertzaintzak erabili duen bortizkeriak «horrelako gehiago gerta daitekeela» ohartarazten du, beraien irudiko.

Kalera ateratzeko garrantzia

Egoeraren aurrean «benetako kezka» agertu du AAMk. «Errepresioa eremu berrietara zabaltzen ari da, intentsioz igotzen ari da eta ondorio larriak uzten ari da». Nolanahi ere, azpimarragarria iruditzen zaio gertaera horiek guztiaren izan duten erantzuna, «herritarrak ez direte angelditu, eta eraso eta gertaera guztiek izandako erantzunak agerian utzi dute errepresioaren antzutasuna, beste behin».

Horixe da jarraitu beharreko bidea, Agirrek azaldu duenez, Euskal Herrian errepresioa utzi, eta «benetako demokrazia baterako» urratsa egin nahi bada. Beraien apustua horixe dela eta aurrerantzean bide horretan lan egingo dutela jakinarazi dute. Gauza bera egiteko deia egin die gainerakoei ere, eta indarrak batzeko gonbida egin diete.

«Salbuespen egoerari aurre egiteko» indarrak metatzera deitu dute AAMtik

berria bekak 2009

NORENTZAT:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: **zortzi beka**, horietako bat, bideo informatiboak lantzeko. Zuzenketa-itzulpengintza arloa: **beka bat**.

- | | |
|--|--|
| <p>Ezaugarriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bederatzi hilabeteko iraupena, urritik ekainera • Astean lau eguneko jarduna • 6.255 euroko diru laguntza • BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkarietzatan | <p>Ezaugarriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hamabi hilabeteko iraupena, urritik irailera • Astean lau eguneko jarduna • 8.340 euroko diru laguntza • BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian |
|--|--|

Eskeraek aurkezteko azken eguna: 2009-09-08
Eskera egiteko orria eta beka deialdia www.berria.info helbidean dago eskuragarri

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

Dena dago ikasliburuetan

ikasliburu guztiak eskuratzeko:

www.ekar.com

ARRAZATE - BRIONA - BERGARA - BILBO - DONOSTIA - GASTEIZ - HERRAN - IRUN - ISURIA - TOLDA



41 panelez eta dokumental batez osatua dago erakusketa. I.T.



Tolosan ez zen liburutegirik garai hartan, baina badira kulturarekin zerikusia duten dokumentuak. Argazki honetan, esaterako, nazionalak liburuak erretzen ari dira Plaza Zaharrean. ARANZADI

'Biblioteca en guerra' erakusketa ibiltaria iritsi da Aranburu jauregira

Tolosa » Errepublikara gaitan liburategien inguruan eginiko lana islatzen du; urriaren 3ra arte izango da ikusgai.

IÑIGO TERRADILLOS

Beste hamar hirutan ikusgai izan eta gero, Tolosara ekarri dute *Biblioteca en guerra* erakusketa ibiltaria. Tolosako Udal Liburutegiaren ekimenez, urriaren 3ra arte

izango da ikusgai Aranburu jauregira, 41 panel eta dokumental batez osaturiko lana.

Gerra Zibilaren 70. urtemugarren harira sorturiko erakusketa da ikusgai dagoena. Hain zuzen ere, Madrilgo Liburutegi Nazionalak egin zuen 2005ean, baina Aranburun dagoena lan haren bertsio ibiltari eta laburtua da. Erakusketa honen bidez, Errepublikaren garaian, eta 1936tik 1939ra bitarte, liburutegiek jaso zuten bultzada eta hainbat elkarre, liburuzain eta erakunde egindako lana erakutsi nahi da. Halaber, «garai hartako espiritua berreskuratu nahi du, hau da, irakurketa, liburu eta liburutegia aldaketa soziala motortzat jo zituen espiritu hura».

Ahazturikoak gogoan

Hala, 41 panel hauen bidez, erakusketa ikustera joaten denak garai hartako historia eta hainbat egin zuen lanaren berri izan

dezake. Argitaratzen ziren liburu eta egunkarien berri ematen du, liburutegiak sustatzen eta, oro har, herritarren artean kultura ezagutarazten zuen eta egun ahazturik dauden pertsonaien inguruko informazioa dago, eta baita ekin-tza hauek guztiak gauzatzeko zituzten zailtasunen ingurukoak ere.

Bestetik 36 minutuko iraupena duen ikus-entzunezkoa ere ikus dezake erakusketa bisitatzera doanak. Iñigo Salaberriak egin eta Madrilgo Liburutegi Nazionalak ekoiztu zuen hau, eta gidoia Blanca Calvo eta Ramon Salaberriarena da. Egileak aipatzen duen bezala, «Liburutegi Nazionalako lehendakariaren eskutik iritsi zitzaidan lan hau egiteko ardura; erakusketa hobe ulertzeko modua da, garai hartako protagonisten lekukotzak jasotzen baitu, eta historiaren errepasua ere egiten du». Interneten youtube atarian ikus

» DATUAK

■ Erakusketa.

'Biblioteca en guerra'.

■ Lekua.

Aranburu jauregia.

■ Noiz.

Urriaren 3ra arte.

■ Ordutegia.

17:30etik 20:30era.

■ Edukia.

41 panel eta ikus-entzunezkoaren bidez, Errepublikara gaitan eta 36tik 39ra liburutegien inguruan eginiko lana islatzen du. Iñigo Salaberria da dokumentalaren egilea.

daiteke ondorengo helbidean: <http://www.youtube.com/watch?v=7twyQ4SqNDO>.

Panelak eta dokumentalarekin batera, gaiari lotutako liburuen erakusketa ere jarri dute Aranburu jauregira, eta urritik aurrera maileguan eraman ahal izango dira.

Arrasate eta Ermuarekin batera egin duten elkarlanari esker iritsi da Tolosara erakusketa. Arratsaldean, 17:30etik 20:30era bisitatu ahalko da, eta hala eskatuz gero, eskola bisitak ere egin ahalko dira, goizez.



Urtekarian zortedunak

ALTZO » Urtekaria 2008ko galdetegia ongi erantzun dutenen artean eginiko zozketan Naiara Irizar eta Mari Murua izan dira sarituak. Altzoko Udalak 80euroko sari bana eman die liburudenda batean gastatzeko. HITZA

Astehenean hasiko dira Musika Eskolan ikasturte berriarekin

Tolosa » Oraindik ere lekua geratzen da, eta matrikula egiteko aukera badagoela adierazi dute bertatik.

ERREDAKZIOA

Eduardo Mocoora Tolosako Udal Musika Eskolak, jakinarazi duenez, ikasturte berriko eskolak datorren astehenean, hilaren 7an, hasiko dira.

Bestalde, jakinarazi nahi dute oraindik ere lekua badagoela, eta matrikula egiteko aukera badela. 943 65 15 93 zenbakira dei daiteke, edota 10:00etatik 13:00etara Musika Eskolara joan.

Helduen Hezkuntza Eskolan matrikula egiteko aukera

ERREDAKZIOA

Tolosako Helduen Hezkuntza Eskolan ikasturte berrirako matrikula egiteko epea zabaldu dute. Hain zuzen ere, hilaren 1etik dute aukera bertan ikasketak egin nahi dituztenek.

18 urtetik gorakoei zuzendua dago Helduen Hezkuntza Eskola, ikastetxe publikoa da, eta doan eskaintzen ditu kurtsoak. 10:00etatik 13:00etara edota 15:00etatik 18:00etara joan daiteke bertara izena ematera, hau da, Tolosako Igaralde kaleko 23. zenbakira. Telefonoz ere dei daiteke ikasturte berrian eskainiko dituzten ikastaroen inguruan edozein zalantza argitu ahal izateko edota izena eman ahal izateko, 943 67 26 60 zenbakira.



Helduen Hezkuntza Eskolaren egoitza. HITZA

Eskaintza zabala

Urtero moduan ikastaroen eskaintza zabala dute prestaturik Helduen Hezkuntza Eskolan, ondorengoak, hain zuzen ere: irakurtzen eta idazten hasteko ikastaroa; oinarriko ezaguerak sakontzeko ikastaroa; Lehen Hezkuntzako maila guztiak; graduaturako prestaketa; Bigarren Hezkuntzako Graduatua (DBH) erderaz edo euskeraz (D eredua); 25 urtetik gorakoentzako Unibertsitateko Sarrera (D aukera eta Goi Mailako Zikloetarako parte amankomuna); arte moduloa; gaztelania atzerriarrentzat; informatika hastapenak; eta memoria lantzeko ikastaroa.

Ikastaro hauek eskaintzeaz gain, ikasturtean zehar hainbat ekin-tza ere antolatzen dituzte Helduen Hezkuntza Eskolan, hitzaldia, txangoak, museotara irteerak, esaterako, eta eskola-aldizkaria ere burutzen dute, bestean artean.



Taloaren Eguna ospatuko dute Leitza. Haur, gazte eta helduentzat antolatu dituzte ekitaldiak. ANDER OTEZABAL

Plazaola Partzuegoak Taloaren Eguna antolatu du biharko, herriko plazan

Leitza » Villabona eta Saralegi talo egileek irekiko dute merkatua. Herri kirol txapelketak ikusteko aukera ere egongo dira.

ASIER IMAZ

Plazaola Partzuego Turistikoak Taloaren Eguna antolatu du bihar Leitza. Egitaraua eta merkatua 10:00etan zabalduko dute eta ekitaldi guztiak herriko plazan egingo dituzte.

Leitzako Udalaran babesa duen Taloaren Egunaren baitan, Nafarroako Txinga-Eroate Txapelketa eta Euskal Herriko Soskor Biltze Txapelketa jokatuko dira. Lehenengoan Migel Anjel Sukuntzaleitzarrak hartuko du parte eta bigarrenoan Eneko Garmendia baliaraindarrak.

Merkatuaren irekiera

Herriko talo-egileek, Villabonak eta Saralegik, zabalduko dute 10:00etan merkatua. Hauekin ba-

tera artisauek etxean egindako lanak plazaratuko dituzte: zur lanak, ezti, sagardoa, gazta...

Erakusketek ere bere lekua edukiko dute plazako merkatu berezian: alde batetik, talo egiteko baserri tresnak ikusteko aukera egongo da eta bestetik, arto zuriketara eta baserriko animalien erakusketaz gozatzeko parada eskainiko du biharko Talo Egunak.

11:00etan ekintza gastronomikoak jarriko dituzte abian: I. Nafarroako Talo Lehiaketa; inguruko taberna eta jatetxeek taloekin egindako plateren erakusketa eta haurrentzako talo egiteko tailerra.

Merkatuaren irekiera

Talo usainetik ez oso urruti, 12:00etan, hiru herri kirol proba ospatuko dira. Lehenik Euskal Herriko aizkolari gazteak irtingo dira plazara. Ondoren Nafarroako Txinga-Eroate Txapelketa jokatu-koda, Migel Anjel Sukuntzaleitzarra tarrean dela. Azkenik, Euskal Herriko Soskor Biltze Txapelke-

tan, besteak beste Eneko Garmendia baliaraindarra ikusteko aukera egongo da.

Taloaren Egunean, beraz, bihar Leitzako Plazan, gastronomiaz, usadioez eta herri kirolaz gozatzeko aukera egongo da. Antolatzaile eta laguntzaileek herritarrei eta inguruko ei parte hartzeko deialdia zabaldu nahi izan diete.

» EGITARAUA

Bihar, irailak 6

■ **10:00.** Merkatuaren irekiera: Leitzako Talo-egileak, artisauek, erakusketak, haurrentzako gurdi ibilaldiak...

■ **11:00etatik 13:30era.** Ekintza gastronomikoak: I. Nafarroako Talo Lehiaketa, talo plateren erakusketa eta haurrentzako talo tailerra.

■ **12:00.** Herri kirolak: Euskal Herriko aizkolari gazteen erakusketa; Nafarroako Txinga-Erute Txapelketa eta Euskal Herriko Soskor Biltze Txapelketa.

Gutunak

Ibarrako Udala mutu azken egunotan

Abuztuaren 27an Ibarrakoa den Maite Aranalde euskal preso politikoa aske geratu zen. Herrian ehundaka lagun bera besarkatze-ko irrikaz zain geunden bitartean, Ertzantzak herri osoa harturik izan zuen, Ibarren sartzeak ere beldurra ematen zuen: aurpegia estaliriko ertzain armatuak non nahi, plazara hurbildu ezkerio identifikatua, komunikabideetan inork antolatu ez zuen omenaldia debekatua...

Orduak luze joan arren goizeko 01:30ak aldera iritsi zen Maite. Plaza poliziak harturik zuenez kaleetan barreiatuak geundela agurto nahi izan genuen Maite. Denok ezagutzen ditugu zeintzuk izan ziren ondorioak: hamabi lagun zaurituta, hamabost identifikatuta, Maiteren osaba bat atxilotua, beste ospitalean eta hiru lagun terrorismoa goraipatzeaz leporatuta.

Oso gogorra izan zen Ibarren gertaturikoa: herria okupatuta, Maite agurto bakarrak nahi zuena zauritua, atxilotua, akusatua. Udal agintariak ordea inongo erantzukizunik ez balute bezala jokatu zuten: ez zuten behatz bakarria mugitu bere herritarrek jipoituak izan ez zitezen; jarduneko alkateak (Koldo Cid) Ibarrako kaleetan topo egin zuen Ertzaintzak eragindako istiluekin, herritar soil bat baltiz bezala jarraitu zuen etxe aldera; ez dakigu Ertzaintzaren jardura txalotzen edo salatzen duten.

Gertaturikoari emaniko erantzun bakarra hurrengo goizean etorri zen: hainbeste aste iraun duen Maite eta Goar, maite zaituztegu zioen kartelakentzeko agindu zietenean udal langileei. Argigarrria.

Trailaren 30ean herritar talde batek manifestazio isila deitu zuen Ibarrako kaleetan ostiral goizaldean izanikoa salatuz. Manifestazioa legezkoa izan arren eguerditi nabaritu genuen Ertzaintzaren okupazioa herrian. Manifestazioa ere halaxe egin behar izan genuen, ostiralean jipoitu gintuen polizia lagundurik. Udala berriz ere geldirik eta mutu.

Hurrengo udalbatzan ordea aukera paregabea emango diegu posizionatu daitezten, izan ere, gertakari hauek salatzen dituen moztioa sartu baitugu udalean: publikoki zerbait esateko garaia da.

Oihana Lopetegui, Ibarrako ezker abertzalearen izenean.

Anjel Arrospide Txapeldunen Ligan

ERREDAKZIOA

Urrezko Aizkolari Txapeldunen Ligako hiru jardunaldi jokatu dira ondorengo egunetan: bihar, asteartean eta asteazkenean.

Anjel Arrospideri dagokionez, leaburuarra azken egun honetan lehiatuko da Ordizian, hilaren 9an. Aizkora jaialdia 19:00etan hasiko da eta Arrospidek aurrean Floren Nazabal eta Iñaki Azurmendi edukiko ditu. Urrezko Aizkolari Txapeldunen 14. jardunaldia jokatu dute Ordizian.

Alonsotegin proba bihar 19:00etan jokatu da. Bertan Floren Nazabal, Juan Jose Lopez Azpilikueta eta Xabier Orbegozo, Arria V.a, egongo dira. Hilaren

8an, asteartean, Urdulizen jaialdia 12:00etan hasiko da. Donato Larretxea, Lopez Azpilikueta eta Iñaki Azurmendi arituko dira lehiari.

Orain arteko sailkapena

Honela aurkitzen da Txapeldunen Ligako sailkapen nagusia: Larretxea dago lehen postuan, 22 punturekin; zortzi jardunaldi jokatu ditu. Bigarren Nazabal aurkitzen da, 6 jardunalditan 16 puntu lortuta. Arrospide 12 punturekin hirugarren dago, sei jardunaldi jokatu ostean. Azpilikueta 5 puntu eta 7 jardunaldi ditu. Arria V.ak 5 puntu eta 6 jardunaldi eta Azurmendi 3 puntu eta 3 jardunaldi.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 032. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 034. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Zinema

■ **Tolosa.** *Enemigos publicos* filma emango dute Leidor aretoan gaur 22:30ean, bihar 19:30ean eta 22:30ean, igandean 19:30ean eta 22:00etan eta astelehenean (Ikuslearen eguna) 20:30ean.

Mendi irteerak

■ **Areso.** Bihar Aresoko II. Mendi Martxa. Izen-ematea, udaletxean, kirolmank@gmail.com, www.mendinavarra.com, 948 60 45 45 telefono zenbakian edo irteeran egin daiteke.

■ **Tolosa.** Pirinioetako Perdido (3.355m) eta Astazu (3.071m) mendietara irteera antolatuta du Oargi mendi elkarteak hilaren 11tik 13ra. Larunbateko, hau da, hilaren 12ko gaua aterpetxe libre edo kanpinean igaroko dute. Izen-ematea, 688 698642 telefono zenbakian.

■ **Tolosa.** Alpino Uzturrek 13rako mendi irteera bat antolatuta Orbaran hasi eta Berrendi (1.354 m), Goñiburu (1.464 m), Idorrokia (1.492 m), Abodi (1.533 m) mendiak igoz. Irteera, Santa Klaratik 07:30ean. Izen-ematea: 943 652789 edo alpinouzturre@hotmail.com.

Erakusketak

■ **Tolosa.** *Biblioteca en guerra* erakusketa dibulgatiboa Aranburu Jauregian, urriaren 3ra arte izango da ikusgai.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Zorionak!

Pakita eta Juanito (Zizurkil). Ezkondu zineteneko 50. urteurrena dela eta, zorionak familiaren partetik.



Zorionak!

Teresa eta Anastasio. Zorionak zuen 50. ezkontz urtemugan, etxekoan partetik



Zorionak!

Atzo aitoren urtebetetze eguna, gaur Ikerrena eta datorren ostiralean Unairena. Urte askotarako eta muxu handi bana.



Urte askoan!

Beñat Calleja Gurrutxaga (Tolosa). Gaur urtebete. Zorionak eta muxu handi bat denon partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzan: Udaletxeko bulegoa

agurrak



bidali opor
hauetako
argazkiak!



sari
mundialak



NORA BIDALI?

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikora edo
HITZAren Tolosako edo Leitzako egoitzetara